

Gaia: Bermeoko udal eraikinen garbitasun zerbitzuetako kontratua

Espediente zenbakia: ZE9-III-75

Espediente tramitatzalea: Zerbitzu saila

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onetsi duenak- Bigarren Xedapen Gehigarriaren 7. idatzatian ezartzen duenarekin bat etorriz eta irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuak -Toki Administrazioetako Gaikuntza Nazionalako Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautu duenak- 3. artikulua c idatz-zatian ezartzen duenarekin bat etorriz, hurrengo **TXOSTENA** igorri dot:

1. Aurrekariak

- Zerbitzu Saileko Zinegotzi delegatuak 2017ko abuztuaren 8an proposatu zuen espedientea hasia Bermeoko Udalaren eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko.

- Zerbitzu Saileko teknikariaren 2017ko abuztuaren 10eko txostenetan beharrezkoa eta izapide urgentea egitea zehazten da.

- Alkatetzaren probidentziaren bitartez, 2017ko abuztuaren 10ean espedienteari hasiera ematen zaio.

- Kontratatu beharra espedientean zuritu da, Zerbitzu Saileko Zinegotzi delegatuaren 2017ko abuztuaren 8ko txostenean, Zerbitzu Saileko teknikariaren 2017ko abuztuaren 10eko txostenetan, 2017ko abuztuaren 10eko alkatetzaren probidentzian eta administrazio baldintza zehatzen orrietan ikus daitekeenez.

- Lizitazioaren prozedura irekia eta presazkoa da, hainbat esleipen-irizpide kontuan hartuta.

Presazko izapidetzaren adierazpen arrazoitua Zerbitzu Saileko Zinegotzi delegatuaren 2017ko abuztuaren 8ko txostenean, Zerbitzu teknikariaren 2017ko abuztuaren 17ko proposamenean, 2017ko abuztuaren 10eko alkatetzaren probidentzian eta administrazio baldintza zehatzen orrietan ikus daiteke.

2. Zuzenbideko Oinarriak

2.1. Kontratuaren izaera juridikoa.

Kontratuaren xedea ikusita, zerbitzuen administrazio-kontratua da, guzti hori 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenaren (aurrerantzean SPKLTB) 10



eta 19.artikuluak kontuan hartuta (II. Eranskina.14. Eraikinak garbitzeko zerbitzua).
CPV (Erreferentzia zenbakia): 90911200-8

2.2. Aplikatu beharreko legeria.

SPKLTBaren 2, 5 eta 19. artikuluetan ezarri denarekin bat etorritik, zerbitzu-kontratu administratibo hau prestaketari, esleipenari, ondorioei eta azkentzeari begira arau hauek zuzenduko dituzte:

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onetsi duena

Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena

Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, beti ere, SPKLTBaren kontra ez doanetan

Bestelako garapen xedapenak

Modu osagarrian, Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak

Eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak

2.3. Kontratatzeko eskumena.

SPKLTBaren 51. artikuluan eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio-organoa Bermeoko Udaleko Alkatea da, eta udalaren izenean jardungo du. Hala ere, 2016ko urtarrilaren 25ean 43. Alkatetzaren Dekretuz eskumen hori eskuordetuta dago Tokiko Gobernu Batzarrera.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arrazoiak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauak ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolana ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

2.4. Kontratazio-espeditentea.

Bideratu den espeditentean jaso dira SPKLTBaren 109. artikuluan aipatzen diren agiriak.

2.5. Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, SPKLTBaren 150 eta 157 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Kontratu hau izapidetuko da presaz, SPKLTBaren 112. Artikuluarekin bat etorritz. Horretarako, kontratazio-organoak egindako presakotasun-adierazpena eduki behar du espedienteak, behar bezala arrazoitua.

SPKLTBko 150. artikuluan arautu denari jarraituta, aurkeztu diren proposamenak balioesteko eta ekonomiaren ikuspegitik eskaintzarik onuragarriena zein den jakiteko, hainbat irizpideak hartuko dira kontuan:

Esleitzeko modu hori egoki jotzen da; eta esleipen-irizpideok SPKLTBko 150.1. artikuluan xedatzen denarekin eta lehia-printzipioarekin bat datoz.

2.6. Lizitazio-iragarkia eta epea

Administrazio-klausula berezien agiriak adierazten du proposamenak 7 egun naturaleko epean aurkeztu behar direla, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.. Hori guztia, SPKLTBaren 112.2.b eta 144 artikuluan zehazten duenarekin bat etorritz.

3. Ondorioak

Azaldutakoa horrela izanik, hauxe sinatzen duenak ulertzen du, ez dagoela legezko oztoporik Alkateak agiriak onetsi eta proposatutako prozedurarako deialdia erabaki dezan.

Hori da nire ustea eta zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpiderik egon liteke. Hala ere, kontratazio organuak egoki deritzona erabakiko dau.

Bermeon, 2017ko abuztuaren 11an

Idazkaria,

Jurdana Uriarte Lejarraga



